**IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA BIDE PUBLIKOA APARKALEKU ESKLUSIBO GISARA ERABILI, IBILGAILUAK GELDITU ETA EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANAK EGITE ALDERA BERTAN TOKIA ERRESERBATZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

**19. ordenantza**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea hau da: ibilgailuak espaloietan barna sartzea eta bide publikoan tokia erreserbatzea aparkatzeko leku esklusibo gisa erabiltzeko, ibilgailuak gelditzeko eta edozein motatako salgaien zamalanetarako.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak urtero sortuko dira urtarrilaren 1ean, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Tasa sei hilabetez behin ordaindu beharko da Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritako epe eta baldintzetan.

Aprobetxamenduak urte barnean hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhileko naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierakoa edo bukaerakoa ere barne harturik.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak, baldin eta, Ordenantza honen 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, tokiko jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko aprobetxamendu bereziaren kasuetan, zergadunaren ordezko izanen dira ibilgailuendako sarrera horien sarbide diren finka eta lokalen jabeak. Horiek zilegi izanen dute onuradunei kuotak ordainaraztea.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasek dagokien ordenantza fiskalari edo aplikagarri zaizkien udal-erabakiei eginen diete men.

Oinarriak, tasak eta tarifak

5. artikulua.- 1) Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko aprobetxamenduen kasuan, Ordenantza Fiskal honen Eranskinean ezarritako tarifak aplikatzeko oinarria erabilitako pasabidearen zabaleraren metroek zehaztuko dute, baita plaza kopuruak eta kalearen kategoria edo eremu fiskala ere, kasuen arabera.

2) Lekua erreserbatzen den kasuetan, erreserbatutako lekuaren luzera eta kalearen kategoria fiskala hartuko dira oinarri.

6. artikulua.- Aplikatu beharreko kuotak Ordenantza fiskal honen eranskinean jaso dira.

Kudeaketa-arauak

7. artikulua.- Lizentziak emateko onetsitako Arauan xedatutakoak arautuko du lizentziak ematea.

8. artikulua.- Ibilgailuak espaloietan barna pasatzea erraztu ahal izateko beharrezkoa bada zintarria beheratzea, tasak ordaindu beharko dira Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak egiteko eta bide publikoan zoladura edo espaloiak mugitzeko tasak erregulatzen dituen ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera, eta aipatu ordenantzan izapide laburreko lizentzien eskarietarako ezarri den kudeaketa- eta kobrantza-prozedura aplikatuko da.

9. artikulua.- Seinaleztatzeko plakak Udalak emanen ditu, behin IV. epigrafean ezarritako tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero. Lizentziaren titularraren eginkizuna izanen da diskoak paratu, mantendu, behar izanez gero berriro paratu eta, erabileraren aprobetxamendua bukatutakoan, haiek kentzea.

10. artikulua.- Lizentziaren titularrak beharturik daude, erabilera edo aprobetxamendua bukatu eta gero, erroldan baja ematera, eta zintarria eta espaloia lehengoratzera. Era berean, seinaleztatze-plakak ere kendu beharko dituzte. Bestela, ulertuko da aprobetxamenduak segitu egiten duela zintarria eta espaloia lehengora bueltatu eta plakak kendu arte.

11. artikulua.- Udaleko Ikuskaritzako eta Udaltzaingoko zerbitzuek Udalari jakinaraziko diote pasabiderako lizentziarik gabe aprobetxamendu hori egiten ari diren lokal edo espazio ororen berri.

12. artikulua.- Ordenantza honetan espazioak aldi baterako erreserbatzeko ezarritako tasak (III.2 epigrafea) Herritarren Segurtasuneko Alorraren bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

Espaloietan barnako aldi baterako pasabideak (III.1 epigrafea) eta seinaleztapen plakak (IV. epigrafea) Udaleko Diruzaintzaren bulegoetan nahiz banku-transferentzia bidez ordaintzen ahalko dira.

## TARIFA-ERANSKINA

### I. EPIGRAFEA.- IBILGAILUEN PASABIDEAK:

I.1. Higiezinei eta eraikinei lotutako garajeak, metro lineal bakoitzeko kalkulatuta, urtean:

| | 0. pol. | 1. pol. | 2. pol. | 3. pol. | 4. pol. | 5. pol. | 6. pol. | 7. pol. | 8. pol. | 9. pol. | 10. pol. | 11. eta 12. poligonoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 eta 2 ibilgailu bitarte | 94,59 | 84,08 | 70,07 | 57,22 | 46,71 | 37,37 | 28,05 | 21,92 | 17,53 | 16,66 | 15,78 | 14,90 |
| 3 eta 5 ibilgailu bitarte | 95,76 | 86,42 | 71,24 | 58,39 | 47,88 | 38,54 | 28,52 | 22,28 | 17,82 | 16,93 | 16,04 | 15,15 |
| 6 eta 10 ibilgailu bitarte | 128,40 | 114,64 | 91,71 | 71,53 | 54,11 | 40,35 | 29,35 | 22,93 | 18,34 | 17,42 | 16,51 | 15,60 |
| 11 eta 25 ibilgailu bitarte | 137,91 | 123,13 | 98,51 | 76,84 | 58,12 | 43,34 | 31,52 | 24,62 | 19,71 | 18,72 | 17,73 | 16,75 |
| 26 eta 50 ibilgailu bitarte | 156,15 | 139,42 | 111,54 | 87,00 | 65,81 | 49,07 | 35,69 | 27,89 | 22,31 | 21,20 | 20,07 | 18,96 |
| 51 eta 100 ibilgailu bitarte | 187,12 | 167,07 | 133,66 | 104,25 | 78,86 | 58,81 | 42,77 | 33,42 | 26,73 | 25,40 | 24,06 | 22,73 |
| 101 eta 150 ibilgailu bitarte | 232,04 | 207,17 | 165,74 | 129,27 | 97,79 | 72,93 | 53,04 | 41,43 | 33,15 | 31,49 | 29,84 | 28,17 |
| 151 eta 250 ibilgailu bitarte | 314,24 | 280,58 | 224,46 | 175,08 | 132,43 | 98,77 | 71,83 | 56,12 | 44,89 | 42,31 | 40,40 | 38,16 |
| 251 eta 400 ibilgailu bitarte | 436,13 | 389,41 | 311,52 | 242,99 | 183,79 | 137,08 | 99,69 | 77,89 | 62,30 | 58,72 | 56,07 | 52,96 |
| 400 ibilgailutik gora | 520,47 | 464,72 | 371,77 | 289,99 | 219,33 | 163,58 | 118,97 | 92,95 | 74,35 | 70,08 | 66,92 | 63,20 |

I.2. Garaje pribatuak, merkataritza- eta industria-ibilgailuentzat, metro lineal bakoitzeko kalkulatuta, urtean:

| | 0. poligonoa | | | | 1. poligonoa | | | | 2. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 1 eta 5 ibilgailu bitarte | 94,59 | 78,24 | 66,56 | 53,72 | 84,08 | 71,24 | 60,73 | 51,38 | 71,24 | 60,73 | 52,55 | 45,54 |
| 6 eta 10 ibilgailu bitarte | 148,31 | 123,79 | 102,77 | 82,91 | 140,13 | 117,95 | 100,43 | 84,08 | 117,95 | 99,26 | 87,58 | 73,57 |
| 11 eta 25 ibilgailu bitarte | 248,24 | 206,87 | 172,39 | 137,91 | 221,65 | 184,70 | 153,92 | 123,13 | 177,32 | 147,76 | 123,13 | 98,51 |
| 26 eta 50 ibilgailu bitarte | 281,07 | 234,22 | 195,19 | 156,15 | 250,96 | 209,13 | 174,28 | 139,42 | 200,77 | 167,30 | 139,42 | 111,54 |
| 50 ibilgailutik gora | 440,04 | 366,70 | 305,58 | 244,46 | 392,89 | 327,41 | 272,84 | 218,28 | 314,31 | 261,93 | 218,27 | 174,62 |

| | 3. poligonoa | | | | 4. poligonoa | | | | 5. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 1 eta 5 ibilgailu bitarte | 59,56 | 51,38 | 45,54 | 38,54 | 50,21 | 42,04 | 38,54 | 33,87 | 40,87 | 36,20 | 32,70 | 30,36 |
| 6 eta 10 ibilgailu bitarte | 98,09 | 84,08 | 73,57 | 63,06 | 80,58 | 71,24 | 61,89 | 54,11 | 67,73 | 59,56 | 50,44 | 40,35 |
| 11 eta 25 ibilgailu bitarte | 138,30 | 115,25 | 96,04 | 76,84 | 104,61 | 87,18 | 72,64 | 58,12 | 78,02 | 65,01 | 54,18 | 43,34 |
| 26 eta 50 ibilgailu bitarte | 156,60 | 130,50 | 108,75 | 87,00 | 118,45 | 98,71 | 82,25 | 65,81 | 88,33 | 73,61 | 61,34 | 49,07 |
| 50 ibilgailutik gora | 245,17 | 204,31 | 170,26 | 136,20 | 185,45 | 154,54 | 128,79 | 103,02 | 138,30 | 115,25 | 96,04 | 76,84 |

| | 6. poligonoa | | | | 7. poligonoa | | | | 8. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 1 eta 5 ibilgailu bitarte | 35,03 | 31,53 | 29,19 | 26,86 | 31,53 | 29,19 | 26,86 | 21,92 | 29,19 | 26,30 | 21,92 | 17,53 |
| 6 eta 10 ibilgailu bitarte | 52,83 | 44,02 | 36,69 | 29,35 | 41,27 | 34,39 | 28,66 | 22,93 | 33,02 | 27,51 | 22,93 | 18,34 |
| 11 eta 25 ibilgailu bitarte | 56,74 | 47,29 | 39,40 | 31,52 | 44,33 | 36,94 | 30,78 | 24,62 | 35,47 | 29,55 | 24,62 | 19,71 |
| 26 eta 50 ibilgailu bitarte | 64,22 | 53,54 | 44,61 | 35,69 | 50,19 | 41,83 | 34,85 | 27,89 | 40,16 | 33,46 | 27,89 | 22,31 |
| 50 ibilgailutik gora | 100,58 | 83,81 | 69,85 | 55,88 | 78,58 | 65,48 | 54,57 | 43,66 | 62,86 | 52,39 | 43,66 | 34,92 |

| | 9. poligonoa | | | | 10. poligonoa | | | | 11. eta 12. poligonoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 1 eta 5 ibilgailu bitarte | 28,03 | 24,98 | 20,82 | 16,66 | 28,03 | 23,67 | 19,73 | 15,78 | 26,83 | 21,72 | 18,63 | 14,90 |
| 6 eta 10 ibilgailu bitarte | 31,37 | 26,14 | 21,78 | 17,42 | 29,71 | 24,77 | 20,63 | 16,51 | 28,06 | 23,39 | 19,49 | 15,60 |
| 11 eta 25 ibilgailu bitarte | 33,69 | 28,07 | 23,40 | 18,72 | 31,92 | 26,60 | 22,16 | 17,73 | 30,14 | 25,12 | 20,93 | 16,75 |
| 26 eta 50 ibilgailu bitarte | 38,15 | 31,78 | 26,49 | 21,20 | 36,14 | 30,12 | 25,09 | 20,07 | 34,13 | 28,44 | 23,70 | 18,96 |
| 50 ibilgailutik gora | 59,72 | 49,77 | 41,47 | 33,18 | 56,58 | 47,15 | 39,29 | 31,44 | 53,44 | 44,53 | 37,11 | 29,68 |

Auto-omnibusen kasuan, ibilgailu bat kalkulatzen da 10 tokiko edo zatiki bakoitzeko, eta kamioien edo arrasteko ibilgailuen kasuan, ibilgailu bat gehienezko zamako 2 tona metrikoko edo zatiki bakoitzeko.

I.3. Ibilgailuak konpondu, garbitu edo koipeztatzeko lantegiak, edozein eratakoak direla ere, gasolina-zerbitzuguneak eta erakustokiak, metro lineal bakoitzeko kalkulatuta, urtean:

| | 0. pol. | 1. pol. | 2. pol. | 3. pol. | 4. pol. | 5. pol. | 6. pol. | 7. pol. | 8. pol. | 9. pol. | 10. pol. | 11. eta 12. pol. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. aldea | 260,42 | 253,82 | 203,05 | 158,39 | 119,80 | 89,34 | 64,97 | 50,77 | 40,61 | 38,58 | 36,55 | 34,52 |
| 2. aldea | 216,04 | 211,52 | 169,21 | 131,99 | 99,84 | 74,45 | 54,15 | 42,30 | 33,84 | 32,15 | 30,46 | 28,76 |
| 3. aldea | 182,18 | 176,27 | 141,00 | 109,99 | 83,19 | 62,05 | 45,12 | 35,25 | 28,20 | 26,80 | 25,39 | 23,97 |
| 4. aldea | 148,31 | 141,00 | 112,81 | 88,00 | 66,56 | 49,63 | 36,10 | 28,20 | 22,56 | 21,43 | 20,31 | 19,18 |

I.4. Garaje publikoak, jarduera ekonomikoen bezeroei zuzendutakoak barne, metro lineal bakoitzeko, urtean:

| | 0. poligonoa | | | | 1. poligonoa | | | | 2. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 50 ibilgailu bitarte | 245,33 | 204,44 | 170,37 | 136,29 | 219,05 | 182,54 | 152,11 | 121,70 | 175,24 | 146,03 | 121,70 | 97,35 |
| 50 ibilgailutik gora | 400,55 | 338,66 | 291,95 | 244,46 | 392,89 | 327,41 | 272,84 | 218,28 | 314,31 | 261,93 | 218,27 | 174,62 |

| | 3. poligonoa | | | | 4. poligonoa | | | | 5. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 50 ibilgailu bitarte | 136,69 | 113,90 | 94,92 | 75,94 | 103,39 | 86,16 | 71,80 | 57,44 | 77,10 | 64,25 | 53,54 | 42,84 |
| 50 ibilgailutik gora | 245,17 | 204,31 | 170,26 | 136,20 | 185,45 | 154,54 | 128,79 | 103,02 | 138,30 | 115,25 | 96,04 | 76,84 |

| | 6. poligonoa | | | | 7. poligonoa | | | | 8. poligonoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 50 ibilgailu bitarte | 56,08 | 46,73 | 38,94 | 31,15 | 43,81 | 36,51 | 30,43 | 24,34 | 35,05 | 29,20 | 24,34 | 19,47 |
| 50 ibilgailutik gora | 100,58 | 83,81 | 69,85 | 55,88 | 78,58 | 65,48 | 54,57 | 43,66 | 62,86 | 52,39 | 43,66 | 34,92 |

| | 9. poligonoa | | | | 10. poligonoa | | | | 11. eta 12. poligonoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea | 1. aldea | 2. aldea | 3. aldea | 4. aldea |
| 50 ibilgailu bitarte | 33,29 | 27,74 | 23,12 | 18,49 | 31,55 | 26,29 | 21,91 | 17,52 | 29,79 | 24,83 | 20,69 | 16,55 |
| 50 ibilgailutik gora | 59,72 | 49,77 | 41,47 | 33,18 | 56,58 | 47,15 | 39,29 | 31,44 | 53,44 | 44,53 | 37,11 | 29,68 |

I.5. Orduka aparkatzeko lizentziak:

| |
|---|
| I.1., I.2., I.3. eta I.4. epigrafeei dagozkien tarifak aplikatuko dira, % 25 murriztuta. |

I.6. Pasabidearen pareko espaloian edo bide publikoan aparkatzeko murriztapen edo debekurik eskatzen ez duten lizentziak, halako mugaketak aldez aurretik jada ezarriak direlako –mugaketok dela hamabostero, dela beste aldi batean behin egiteko ezarrita egonda ere–:

| |
|---|
| % 50 murriztuko dira I.1., I.2., I.3. eta I.4. epigrafeetako tarifak pasabide iraunkorren kasuan, eta I.5. epigrafekoak, ordutegia duten pasabideen kasuan. |

**II. EPIGRAFEA.- TOKI-ERRESERBAK:**

II. 1. Erreserba iraunkorra metro lineal bakoitzeko, urtean:

| | 0. pol. | 1. pol. | 2. pol. | 3. pol. | 4. pol. | 5. pol. | 6. pol. | 7. pol. | 8. pol. | 9. pol. | 10. pol. | 11. eta 12. pol. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. aldea | 144,81 | 143,64 | 122,62 | 105,10 | 89,92 | 68,63 | 49,91 | 38,99 | 31,19 | 29,63 | 28,07 | 26,51 |
| 2. aldea | 123,79 | 122,62 | 106,27 | 92,26 | 76,67 | 57,18 | 41,59 | 32,49 | 25,99 | 24,69 | 23,40 | 22,09 |
| 3. aldea | 108,60 | 108,60 | 94,59 | 82,91 | 63,90 | 47,65 | 34,66 | 27,08 | 21,66 | 20,57 | 19,49 | 18,41 |
| 4. aldea | 93,42 | 92,26 | 81,75 | 67,59 | 51,12 | 38,13 | 27,72 | 21,66 | 17,33 | 16,46 | 15,60 | 14,73 |

Baldin eta erreserba baimendurik badago txandaka aparkatzeko debekua duen kale bateko bi espaloietan, tarifa alde bakar baten neurriaren gainean kalkulatuko da, eta zehazki, luzera handiena duen aldearen neurriaren gainean.

II.2. Ordutegi mugatuko erreserba: II.1. epigrafeko tarifak aplikatuko dira, % 25 murriztuta.

**III. EPIGRAFEA.- ESPALOIETAN BARNAKO PASABIDEAK ETA TOKI-ERRESERBAK, ALDI BATERAKO:**

III.1. Espaloietan barnako aldi baterako pasabideak: Espaloietan barnako pasabideak aldi jakin bateko obra edo jarduketak egitekoak badira, tasa honako hauen batura izanen da:

| | |
|---|---|
| a) Baimendutako pasabidea | 13,80 euro |
| b) Pasabideak okupatzen duen metro lineal bakoitzeko: I.3. edota I.5. epigrafeetako tarifak aplikatuko dira kasuan-kasuan, aprobetxamendu-egunen arabera hainbanatuta. | |

III.2. Aldi baterako toki-erreserbak: Toki-erreserbak aldi jakin bateko obra edo jarduketak egitekoak badira, tasa honako hauen batura izanen da:

| | |
|---|---|
| a) Baimendutako erreserba | 13,80 euro |
| b) Erreserbak okupatzen duen metro lineal bakoitzeko: II.1 eta II.2. epigrafeetako tarifak aplikatuko dira kasuan-kasuan, aprobetxamendu-egunen arabera hainbanatuta. | |

**IV. EPIGRAFEA.- SEINALEZTAPEN-PLAKAK:**

| | |
|---|---|
| Pasabideak seinaleztatzeko plaka-joko bakoitzeko | 31,95 euro |